

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### 543/2024 Foru Agindua, urriaren 22koa. Bitarteko izendapena egitea María Lourdes Miranda Lafuenteri, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

2024ko urtarrilaren 14an, Asparreneko Udaleko alkateak María Lourdes Miranda Lafuenteri bitarteko izendapena egiteko eskatu zuen, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako, 2024ko urriaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua hutsik dago titularrak erretiroa hartu zuenetik, eta azken lehiaketa arruntean sartu zen, baina hura hutsik geratu da.

Espedientean jasotzen denez, maiatzaren 24ko ALHAOn (58. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estaturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina ez zen eskaerarik aurkeztu.

Lanpostua ezin zenez aurreko bitartekoen bidez bete, udaleko alkateak hautaketa prozedura bat izapidetu du berdintasun, merezimendu, gaitasun, publikotasun eta bizkortasun printzipioak betez, lanpostua berehala bete ahal izateko bitarteko izendapen baten bidez.

Hura amaituta, eta balioespen epaimahaiaren proposamenaren arabera lan poltsa eratuta, lehendakariaren urriaren 9ko ebazpen baten bidez onetsi zen, deialdia arautzen duten oinarriak betez, eta puntuazio ordenaren arabera lehenengoa zen hautagaia, María Lourdes Miranda Lafuente, izendatzea proposatu zen. Hark izendapen proposamena onartu zuen, eta epe barruan aurkeztu zituen sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, bai eta izendatu aurretik aurkeztu beharreko gainerako agiriak ere.

Hori guztia oinarri hartuta, 2024ko urriaren 11n, alkateak proposatu zuen bitarteko izendapena egitea hari Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua behin-behineko funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikulua xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Lourdes Miranda Lafuente izendatzea, 2024ko urriaren 17tik aurrerako ondorioekin, Asparreneko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, behin betiko izendapenaren bidez, behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketaren bidez.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Asparreneko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 22a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria*  
**JON ANDA LÁZPITA**